



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2022

### KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

1. Eguneroko informazioa ematen duten komunikabideak (COVID-19) .....	3
2. Kirol federazioen programak .....	5
3. Kirol lehiaketetan parte hartzea.....	6
4. Kirol lehiaketen antolaketa .....	7
5. Kirol sektoreko enpresak eta profesionalak (COVID-19) .....	8
6. Kultura ondarearen ikerketa .....	9
7. Ondare immateriala babestea .....	11
8. Kultura ondarea balioztatzea.....	13
9. Itsas kultura ondarea .....	15
10. Museoak eta bildumak.....	17
11. Artxibo publikoak .....	19
12. Artxibo pribatuak.....	21
13. Irakurketa sustatu .....	23
14. Liburutegietarako liburu funtsak .....	24
15. Teknologia berriak liburutegietan .....	26
16. Kultura ondarea digitalizatzea .....	28
17. Liburutegietarako liburu funtsak (MRR).....	29
18. Musika .....	31
19. Arte eszenikoen sustapena .....	33
20. Arte eszenikoen produkzioa .....	35
21. Ikusentzunezko garapena .....	37
22. Ikusentzunezko produkzioa .....	38
23. Arte plastikoak eta ikusizkoak .....	40
24. Gure Arte sariak .....	42
25. Literatura argitalpenak.....	44
26. Euskadi Literatura sariak.....	46
27. Irudi sorkuntza .....	47
28. Sorkuntzako kultura guneak (Sorgune).....	48
29. Bitartekotza eta berrikuntza kultura eta gizarte arloan (Bitartez) .....	49
30. Kultura sorkuntza.....	50
31. Jaialdiak.....	52
32. Alderdi politikoen fundazioak.....	54
33. Kultura publikoa .....	56
34. Kultura sustapena eta banaketa.....	57

35. Zuzeneko musikako eta zinema erakusketetako profesionalak (COVID 19) .....	59
36. Arte Eszenikoen eta musikalen azpiegiturak (MRR) .....	61
37. Zinema aretoak modernizatzea (MRR) .....	62
38. Kultura azeleragailuak (MRR) .....	63
39. Kultura eta sormen industrien berrikuntza.....	64
40. Euskara gizarte bizitzan (Euskaingintza) .....	65
41. Euskarazko hedabideak .....	67
42. Euskara gaztelaniazko hedabideetan .....	69
43. Euskara sektore pribatuan (Lanhitz) .....	71
44. Euskara eta genero berdintasuna (Berdintzen).....	73



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Eguneroko informazioa ematen duten komunikabideak (COVID-19)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko urriaren 11koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, COVID-19aren pandemiak eragindako kalteak direla-eta eguneroko informazioa ematen duten komunikabideentzako 2022ko laguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Programaren araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204473e.pdf>

Emate-ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/12/2205503e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzaren helburua da Euskadin irismen handiena duten eta eguneroko informazioa ematen duten komunikabideen jardueraren bitartez, herritarren informazio eskubidea bermatzea. Komunikabide horiek gaurkotasuneko informazioa eskaintzen dute, batez ere eskualdekoa eta tokikoa, eta pandemian zehar euskal herritarrek egiazkoa, profesionala eta egiaztatutakoa den informazioa izateko duten eskubidea bermatu dute eta gaur egun ere bermatzen dute, desinformazioaren arriskuari aurre eginez eta herritarren alfabetatze mediatikoan lagunduz.

Hedabide-mota hartzaileak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten edo ordezkariak duten eguneroko prentsa idatziak eta haien digitalak eta komunikabide digital natiboak, programazioaren % 15 gutxienez EAErentzat dela.
- Programazio jeneralista duten irratiak, egoitza Euskadin dutenak edo EAEn ordezkariak dutenak eta programazio propioa dutenak.
- Egoitza Euskadin duten edo EAEn ordezkariak duten eta programazio propioa duten telebista jeneralistak.

Aurrekontu-zuzkidura: 6.000.000 €

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Dirulaguntza deialdira 37 eskaera aurkeztu ziren, horietatik 25 eskaera diruz lagundu ziren. Beraz, aurkeztutako eskaeren % 67.6a diruz lagundu zen.

Deialdira zuzendutako kopuru osoa esleitu zen: 6.000.000 €.

Dirulaguntza-programak genero-ikuspegian duen eraginari dagokionez, eragin negatiboa izan duela kontuan hartzen da, desberdintasunak ezabatzea edo gutxitzea ez baita aurreikusten.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Emandako dirulaguntza kopurua	-	25



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kirol federazioen programak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko otsailaren 23koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita euskal kirol-federazioen 2022ko kirol-programak finantzatzeko dirulaguntzetarako deialdia. (EHAA, 2022ko martxoaren 4a, 46. zk.)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/03/2201067e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2203821e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadiko kirol-federazioak urteko programa gauzatzeko finantzatzea, itzultzekoak ez diren dirulaguntzen bidez.

287/2000 Dekretua, abenduaren 26koa, euskal kirol-federazioen kirol-programetarako dirulaguntzak ematea arautzen duena betetzeko.

Helburua da Euskadiko kirol-federazioei laguntza ekonomikoa ematea, euren kirol modalitateari dagozkion autonomia erkidegoko eremuko kirol jarduera eta lehiaketak bultzatzeko, kalifikatzeko, baimentzeko, arautzeko eta antolatzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegiari izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

44 eskaera egin ziren eta 43k jaso dute dirulaguntza.

Aurrekontuan aurreikusia: 2.200.000 €. Aurrekontuaren gauzatzea: 2.200.000 €.

Eragina gizartean: helburuak bete ditu dirulaguntza honek, beraz, erabat erabilgarria dela adierazten dugu.

Desberdintasunak ezabatzeko ekintzak garatzen dituzten, emakumeen parte-hartzea sustatzen duten eta berdintasuna sustatzen duten federazioei lagundu zaie.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	45	43



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kirol lehiaketetan parte hartzea**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 24koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baita dirulaguntzak emateko erregimena 2022an egingo edo hasiko diren kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, eta emakumezkoen liga nazionaletan, kategoria absolutuan. (EHAA, ekainaren 10a, 112. zk)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202598e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2204852e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan, zuzendutako dirulaguntzak dira. Emakumezkoen liga nazionaletan, kategoria absolutuan, parte-hartzea ere diruz laguntzen da.

Helburua da euskal kirola nazioarteko esparruan egotea, eta kirol-jarduera sustatzea ere bai.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

31 eskaera egon ziren eta 29k dirulaguntza jaso zuten. Nazioarteko lehiaketetan eta emakumezkoen kategoria absolutuko liga estatualetan parte hartu zuten klubak izan dira, eta horren ondorioz, kirol esparruan eragin handia sortu dute.

Aurrekontuan aurreikusia: 600.000 €. Aurrekontuaren gauzatzea: 597.477,59 €.

Eragina gizartean: helburuak bete ditu dirulaguntza honek, beraz, erabat erabilgarria dela adierazten dugu.

Emakumeen parte-hartzea sustatzen duten jardueri lagundu zaie.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	30	29



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kirol lehiaketan antolaketa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 25ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen eta arautzen baitira 2022. urteko goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko dirulaguntzak. (EHAA, 2022ko ekainaren 27a, 123. zk)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202924e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2204950e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzen laguntzeko dirulaguntzak dira.

Helburua da goi mailako kirola sustatzea, batetik, Euskal Herrian oinarrizko kirola garatzeko funtsezko faktorea delako eta, bestetik, estatu-mailako eta nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan errepresentazio-funtzioa duelako.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

28 eskaera egon ziren eta guztiak jaso zuten dirulaguntza. Lehiaketa guztiak goi-mailakoak dira eta estatu-mailako edota nazioarteko kirol esparruan eragin handia sortu dute.

Aurrekontuan aurreikusia: 200.000 €. Aurrekontuaren gauzatzea: 193.559,84 €.

Eragina gizartean: helburuak bete ditu dirulaguntza honek, beraz, erabat erabilgarria dela adierazten dugu.

Emakumeen parte-hartzea sustatzen duten jardueri lagundu zaie.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	30	28



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kirol sektoreko enpresak eta profesionalak (COVID-19)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailaren 26koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022an kirolaren sektoreko enpresa eta pertsona profesional autonomoentzako COVID-19 laguntzak arautzeko eta deitzeko. (EHAA, 2022ko irailaren 15a, 177. zk)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204017e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2023/01/2300018e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kirol-sektoreko antolaketa-egitura pribatuak (enpresak eta profesional autonomoak) babesteko dirulaguntza.

Programaren helburua da COVID-19aren ondorio ekonomiko kaltegarriak arintzea kirol-instalazioak edo gimnasioak kudeatzen dituzten erakundeetan. Kontua da agintari publikoek pandemiaren hedapena geldiarazteko hartutako neurrien inpaktua minimizatzea, kirol-arloko jarduera erabat geldiaraztea edo murriztea eragin dutenak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

56 eskaera egin ziren, eta horietatik 39k jaso zuten dirulaguntza.

Aurrekontu-betearazpena: Eskaeren kopurua txikiagoa izan da hasierako aurreikuspena baino. Horren ondorioz, ez da agortu dirulaguntza honetara bideratutako 1.000.000€-ko aurrekontu-partida, 619.668,99 €-ko laguntzak emanez.

Baliagarritasuna eta inpaktu soziala: Onuradun gehiagorengana iristea izango zen onena, baina deialdia baliagarria izan da kirol-sektoreko profesional eta enpresa kopuru esanguratsu baten biziraupena bultzatzeko, eta horrek eragin sozial positiboa izan du.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	400	39





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kultura ondarearen ikerketa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren 8koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022an eta 2023an Euskal Kultura Ondarearen babesaren arlorako bideratutako ikerketa-lanak egiteko diru-laguntzen deialdia egin eta hartarako araubidea arautzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202738e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2204951e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduaren helburua 2022. eta 2023. urteen artean garatzen diren eta Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondareko elementu materialak xede dituzten ikerketa-proiektuak gauzatzeko diru-laguntzak ematea da. Ikerketa hori ezinbestekoa da Kultura ondareko elementu horien balioak euskal kultura-ondarearen zati gisa identifikatzeko, formalki izendatzeko eta lege babesteko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Onartutako 19 proiektuetako 14ri eman zitzaizkien dirulaguntza. Ebazpenean emandako diru-laguntzek agortu egin behar zuten aurrekontu-partida erabilgarria, guztira 190.000 euro baitziren. Hala ere, onuradunetako batek uko egin zion dirulaguntzari. Beraz, emandako eta onartutako dirulaguntzek guztira 177.700 euroko zenbatekoa osatzen dute.

Onartutako 19 proiektuetatik, 17k dirulaguntza jasotzeko eskubidea izateko gutxieneko puntuazioa lortu dute, baina eskura zegoen guztizko zenbatekoa ez da proiektu guztietarako lortu, eta, beraz, horietako hiruk ezin izan dute dirulaguntzarik jaso.

2022an diruz lagundutako proiektuen xedea Euskal Kultura-ondarearen alderdi zehatz eta askotarikoak dira, eta ikusten da aurreko deialdietan adierazitako interesa gero eta sendoagoa dela nekazaritza- eta baso-paisaiaren eta arkeologia militar garaikidearen arkeologiari eta arkitekturei dagokienez. Dirulaguntza jasoko dute kontzeptuari, geografiari, kronologiari eta dimentsio anitzi dagokienez xedea duten ikerketa-lanak, arkeologia, arkitektura eta artearen historia konbinatuta, eta hori da dirulaguntzen lerro honen helburuetako bat.

Haren erabilgarritasunari eta inpaktu sozialari dagokienez, ikerketen gaian ikusten da eragin positiboa izaten ari dela Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak aitortutako eta



bultzatutako kultura-ondarearen esparru kontzeptuala zabaltzean. 2022ko deialdian, aurreko deialdietan bezala, 6/2019 Legean adierazitako kategoria berri batzuen presentzia handia hauteman da kultura-ondarearen proiektuetan, hala nola kultura-paisaiena eta industria-ondarearena. Era berean, berretsi egiten da komunitate zientifikoak gero eta interes handiagoa duela ondare garaikidearekiko, bereziki gatazka militarren arkeologiarekiko.

Halaber, uste dugu Agindu honek eragin oso positiboa izaten ari dela euskal kultura-ondarearen ezagutzan, eta hori zabaltzen ari gara gizarterako sarbide ireki eta doakoan, «Kultura-ondareari buruzko ikerketak» argitalpenaren bidez.

Azkenik, dirulaguntza horiek generoaren eta berdintasunaren arloan duten eraginari dagokionez, proiektuak baloratzeko irizpideek klausula bat dute, 100 puntutik 5 ematen dizkiona ikerketa-lana zuzentzen duen pertsona emakumea izateari edo proiektuaren formulazioan genero-ikuspegia txertatzeari. 2022ko deialdian, hemeretzitik bostek jaso zituzten bost puntuak, kasu guztietan emakumeak agertzen zirelako proiektuaren eskatzaile/ikertzaile nagusi gisa. Horietako hiru emandako hamalau dirulaguntzen onuradun izan ziren.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Kultura ondarearen babesaren alorrari aplikatutako ikerketa lanak (dirulaguntza kop.)	12	13



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ondare immateriala babestea**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022-2023 aldirako Euskal Kultura Ondare Immateriala babesteko lanak egiteko dirulaguntzak emateko dena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/09/2203820a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2203820e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua da dokumentazio-, ikerketa-, transmisio-, hedapen- eta sustapen-proiektuak bultzatzea, euskal kultura-ondare immateriala babesten laguntzeko. Honako hauek dira diruz laguntzen diren egitasmoak: kultura-adierazpen immaterialak ikertzeko eta erregistratzeko proiektuak; elementu horien egoera aztertzeko eta diagnostikatzeko dokumentuak eta jarduera-proposamenak; kultura-elementu immaterialak kudeatzeko eta babesteko planak; adierazpen horietako edozeinen transmisioa bultzatzen laguntzen duten proiektuak, eta, oro har, euskal ondare immaterialaren ezagutza zabaltzen eta hobetzen laguntzen duten jarduerak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

20 proiektu aurkeztu dira, eta horietatik 11k lortu dute 15.1 artikuluan eskatzen den puntuazioa.

Zenbateko ekonomikoak, ordea, puntuaziorik onena lortu duten zortzi proiektuei bakarrik eman die dirulaguntza.

Deialdiaren bigarren urtea bada ere, uste dugu Agindu honek eragin positiboa izaten ari dela euskal kultura-ondare immateriala babesteko. Ildo horretan, antropologian, hizkuntzalaritzan, etnografian eta abarretan espezializatu diren adituen kolektiboak biltzen dira.

Aurkeztutako lanei dagokienez, proiektuen % 75 emakumeek aurkeztu zituzten edo proiektua garatzeak emakumeen kolektibo baten parte-hartzea eskatzen zuen. Ebaluatutako proiektuen % 81,25 emakume batek gauzatu zituen, edo proiektua garatzeak emakumeen kolektibo baten parte-hartzea eskatzen zuen. Proporzio hori % 87,5era igotzen da diruz lagundutako lanei buruzko kalkulua egiten badugu.



Bosgarren balorazio-irizpidea genero-ikuspegiari buruzkoa da; izan ere, proiektuaren balorazio osoaren % 5 eman zitzaien emakumeei proiektuaren zuzendaritza gauzatzen dutenean, proiektuaren garapenak emakumeen kolektibo baten parte-hartzea dakarrenean edo genero-ikuspegia txertatzen duenean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Euskal kultura-ondare immateriala babesten laguntzen duten lanak (egitasmo kopurua)	7	8



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kultura ondarea balioztatzea**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 18koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2022-2024 aldirako dirulaguntzetarako deialdia arautzen eta egiten duena eta Agindu horren akatsak zuzentzea.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202480e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2204790e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen bidez, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko jardueretarako diru-laguntzen deialdia egiten da urtero, eta diru-laguntza horiek eskatzeko, emateko eta justifikatzeko baldintzak arautzen dira. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak, gehienez ere, 2022-2024 hiru urteko aldian garatu beharko dira, EAEko kultura-ondasunaren deklarazioa duten ondasunen gainean, eta pertsona fisiko jabeek nahiz irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuek edo publikoek sustatu beharko dituzte.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Kulturako sailburuordearen 2022ko urriaren 27ko Ebazpenaren bidez, 2022-2024 aldirako Euskal Kultura Ondarearen balioa nabarmentzeko eta zabaltzeko dirulaguntzak eman ziren, eta 19 jardueretarako dirulaguntza eman zen (2 Araban, 8 Bizkaian eta 9 Gipuzkoan). Onuradunak 12 udal, erakunde publiko autonomo 1, fundazio 1, irabazi-asmorik gabeko 3 erakunde juridiko eta jabe den erakunde juridiko pribatu 1 eta jabe den pertsona fisiko 1 dira. Jarduera motari dagokionez, diruz lagundu dira: ondasun higiezinak berrerrabiltzeko 7 proiektu, Donejakue Bideko Monumentu-multzoari balioa emateko 5 proiektu, Hirigune Historikoei balioa emateko 5 proiektu, arkeologia-ondareari balioa emateko 5 proiektu, industria-ondarean esku hartzeko 2 proiektu, horietako bat ondare higigarriari buruzkoa, eta Elizaren kultura-ondasunei balioa emateko eta zabaltzeko 2 proiektu.

Jarduerak hasi zirenetik igarotako epea oso laburra denez, oraingoz ez da amaitu diruz lagundutako jarduerarik, baina kasu guztietan justifikatu da 2022an gauzatutako jardueraren zatia.

Guztizko aurrekontu-kreditua (3.000.000 euro) 19 eskabide onenekin agortu da, eta, beraz, 5 eskabide ukatu behar izan dira, eskatutako gutxiengoa baino puntuazio handiagoa lortu arren.



Diru-laguntzaren erabilgarritasunari dagokionez, kultura-ondarea osatzen duten ondasunetan egindako jarduketak, kasu askotan, izaera bereziko ondasun baliotsu eta kalteberetan egindako esku-hartze konplexuak dira, eta inbertsio ekonomiko handiak eskatzen dituzte konplexutasun teknikoagatik, espezifikotasunagatik, kontserbazio-egoera eskasagatik edo tamainagatik. Diru-laguntza emateko agindua ezinbesteko sustapen-neurria da; izan ere, kasu askotan, jabe partikularrek eta administrazio publikoek ez dute haiek bakarrik lantzeko gaitasunik. Bestalde, agindua bereziki eraginkorra da arlo ekonomikoan apalagoak diren jarduerak sustatzeko, gizartea sentsibilizatzea eta kultura-ondarea sozializatzea bideratuta daudenak, eta, ondare hori zaintzeko eta kontserbatzeko ezinbestekoak izan arren, batzuetan lehentasunezko zat jotzen ez direnak, bereziki, toki-administrazioek.

Gizarte-inpaktuari dagokionez, urtero egiaztatzen da erakunde publikoek aurkeztutako eskaeren proportzioa askoz handiagoa dela pertsona edo erakunde pribatuena baino, eta horrek aukera ematen du interpretatzeko proiektu horiek eragin eta interes sozial handiagoa izango dutela. Bestalde, diruz lagundutako ia jarduera guztiek kultura-ondasunen seinaleztapena eta interpretazioa barne hartzen dute, eta horrek haien ondare-balioei buruzko hedapena eta sentsibilizazioa bultzatzen du gizartean.

Azpimarratzekoa da, halaber, kultura-ondarearen sektorean espezializatutako teknikariak eta enpresak kontratatzea eskatzen duten diruz lagundutako jardueren garapenak sortutako jarduera ekonomikoa, tokiko garapenari lagun diezaiokela.

Aginduan generoaren ikuspegitik balorazio-irizpide batzuk sartu badira ere, ez dute eraginik izan azken emaitzan, aginduaren xedea eta onuradun konkurrente gehienen tipologia direla-eta.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	25	19



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Itsas kultura ondarea**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 25koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko 2022ko ekitaldiko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202431e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204237e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza hauek itsas-ondarearen arloan eman ditugu kultura-balioa duten elementuak sustatzeko, sendotzeko, konpontzeko eta bere erabilerara egokitzeko. Jarduera horiek, betiere, bateragarriak izan behar dira elementu horien kultura-balioekin.

Lau diru-laguntza lerrotan eman dira laguntzak, jarraian adierazten den bezala:

- 1. lerroa. Egurrezko ontzietan obrak egitea, musealizazioa helburu. Honako hauek lagunduko dira diruz: azterlanak, segurtasunerako obrak eta sarbidea, kartelak...
- 2. lerroa. Egurrezko ontziak tresnatzea eta prestatzea, jendeari zerbitzua emateko. Barne: segurtasun- eta nabigazio-ekipamendua, balioan jartzea eta egiturazko lanak, nabigaziorako beharrezkoak direnak.
- 3. lerroa. Lehorreko instalazioen garrantzia nabarmentzea: ontziolak, lonjak eta ontziralekuak. Hauek sartzen dira atal honetan: aurretiazko beharrezko azterlanak irizpideak finkatzeko; eranskin itsusgarriak kentzea; zenbait eraikin erabiltzeko moduan jartzea; kartelak; panelak eta gainerako elementuak egin beharreko balioespenari edo musealizazioari berez dagozkionak.
- 4. lerroa. Egurrezko ontziak konpontzeko eta egokitzeko gastuak. Barne hartuta ontziaren nabigaziorako beharrezkoak diren lizentzia eta baimenak izapidetzeko gastuak. Esku-hartzeak ez die ondare-balioei kalte egingo.
- 5. Lerroa: Zurezko itsas kultura-ondarearen balioa nabarmentzeko ekitaldiak: itsas kultura-ondarearen balioa nabarmentzeko zuzen zuzeneko ekitaldiak (itsasontzien kontzentrazioak, erakusketak, hitzaldiak, jarduera didaktikoa, argitalpenak...).



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Aurtengo deialdia, 200.000 €ko aurrekontuarekin, nahiko ondo egokitu da eskarira, eta, uste dugu, interesdunen kopurua eta nolakotasuna inplementatzea lortu dela.

Exekuzioa laguntza-lerroen arabera:

- L1: 5 proiektu
- L2: 5 proiektu
- L3: 1 proiektu
- L4: 14 proiektu
- L5: 3 proiektu
- Guztira: 28 proiektu. Emandako zenbatekoa: 148.389,02 €.

Gaur egun, partikularrek, elkarteek eta ondare horretan dauden gainerako erakundeek ondo baloratzen dute dirulaguntza-agindua, eta, orokorrean, oso herrikoa da, interesdunak jabe txikiak dira eta.

Deialdi honetan ez da generoaren araberako eraginaren ebaluaziorik egin behar, zurezko ontzi tradizionalen inguruko lanak diruz laguntzean oinarritzen baita.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntzen kopurua	15	28





#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Museoak eta bildumak**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko apirilaren 6koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baitira EAEko museo eta bildumetarako dirulaguntzak 2022. urterako.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201766e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2205209e.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza hauen bidez, jarduera-ildo estrategiko hauetan eragina izan duten proiektuak egin daitezen bultzatu nahi da:

- Bilduma osatzen duten funtsak katalogatzea eta dokumentatzea.
- Erakusketa finkoa berritzea eta aldi baterako erakusketak egitea.
- Bakoitzaren gaiaren eta jarduketa-eremuaren arabera jarduera didaktikoak eta kultura zabaltzekoak diseinatu eta eskaintzea.
- Dituzten gai eta jarduketa-eremuarekin lotutako ezagutza sortzea.
- Berrikuntza hobetu eta bultzatzea museoaren kudeaketan eta zabalpen- eta komunikazio-planean.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Emandako 46 dirulaguntzak onuradunak izan litezkeen 36 museoetako 24ri eman zaizkie –deialdiaren arauaren arabera Erregistroan izena emana duten museo guztiak ezin dira dirulaguntzen onuradunak izan-, beraz esan daiteke dirulaguntza hauek museoan jardueran oro har eragin handia izan dutela, 2022ko aurrekontuen memoriak aurreikusitako dirulaguntzen kopurutik gertu (47) egon delarik.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa 1.000.000 eurokoa izan zen.

Dirulaguntzak eskatzen dituzten museo eta bilduma gehienak tamaina txiki eta ertaineko entitateak dira, Euskadiko esparruan banatzen direnak. Gainera, entitate horiek beraien inguruko komunitateekin batera, museo eta bildumen funtsak osatzen dituzten ondare materiala eta inmateriala hedatzeko jarduerak bultzatzen dituzte, aldi berean beraiek kultura balioak berreskuratzen eta babesten lagunduz.

Museoen funtzio kultural eta hezitzailea kontuan harturik, eta diruz laguntzen diren hauen jardueren bitartez, museoek lan egin dezakete, botere publikoekin batera, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko gizarte sentsibilizazioan. Halaber, aurreko urteetan berdintasuneko klausulak sartu ziren laguntza



jaso ahal izateko eta onuradunen betebeharrentzako. Balorazio irizpideetan genero ikuspegia kontuan hartzen duen irizpide berria txertatu zen, zeinak diruz lagunduko diren proiektuen edukiak baloratzen dituen.

Horrek 2022ko proiektuetan isla izan du: aurkeztutako 16 proiektuek puntuazio altuena lortu dute (5) emakume eta gizonen arteko berdintasunean, 19 proiektuek 3ko zenbatekoa lortu dute eta 4ko puntuazioa 11 proiektuek.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Bildumaren kudeatzea eta berau ezagutzeko sarbidea hobetzea	8	7
Erakusketa iraunkorra berritzea eta aldi baterako erakusketak antolatzea	17	17
Didaktika eta hedapen-jarduerak, museo eta bildumaren izaeraren edo espezialitatearen arabera	14	15
Museoaren jardun-eremuarekin zerikusia daukan ezagutza sortzea.	4	3
Kudeaketa hobetzea eta berrikuntza sustatzea.	3	5
Bisitarientzako prebentzioko neurri higieniko-sanitarioak, eta museoetako langileei dagokienez, laneko arriskuak prebenitzeko neurriak.	1	-



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Artxibo publikoak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren 8koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena. Horren bidez, toki-erakundeei beren artxibo-sistema martxan jarri eta/edo sendotzera bideratutako dirulaguntzak emateko araubidea ezarri, eta 2022ko ekitaldiko deialdia egiten da.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202736e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204121e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak Euskadiko Artxibo Sistemaren artxibo politikan ezinbesteko garrantzia dauka eta epe erdi eta ertainera artxibo zerbitzuak egonkortu eta sendotzeko ezinbesteko tresna da.

Helburuak hauexek dira, besteak beste, ondoko jarduerak bultzatzea:

- Artxibo-zerbitzuak abian jartzea, antolatzea (artxiboko dokumentuak sailkatu, ordenatu eta deskribatzea) edota mantentzea. Atal honetan sartzen da ere artxibo kudeaketa digitalaren sistemak ezartzea, artxiboko kudeaketa integrala ahalbideratzen dutenak;
- Deskribatzeko tresnak sortzea edo hobetzea;
- Dokumentu-funtsak baloratzea eta aukeratzea;
- Kultura-zabalkunderako artxibo-jarduerak bultzatzea;
- Mankomunatatutako artxibo-zerbitzuei eustea;
- Artxibo-dokumentuak digitalizatzeko jarduerak burutzea.

Dirulaguntzaren zenbatekoa orotara 298.000 eurokoa izan da, eta aurkeztutako programa bakoitzak gehienez, aurrekontuaren %50a jaso du, muga 20.000 eurokoa izanda.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022an, 77 erakunderen 86 eskaera jaso dira eta guztira 60 programa izan dira diruz lagundutakoak. Entitate eskatzaileei dagokienez 2022ean, udalek egin dituzte 68 eskaera, Arabako kontzejuek 11, eta udalaz gaindiko erakundeek 4 egin dituzte. Eskaeren zenbatekoa zerbait jaitsi da aurreko urtearekiko, baina dirulaguntza-lerro honen esparru normalean sartzen da (75 eta 100 eskaeren artekoa) Eskaeren eta emandako dirulaguntzen arteko erlazioa % 72,28koa izan da, aurreko urtekoarekin alderatuta aldaketa txikiarekin (% 70, 32). Ebazpenaren zenbatekoa 298.000 eurokoa izan zen eta aurrekontu guztia erabili



zen. Azkenean (bi entitatek ezin izan baitzuten proiektua egin), dirulaguntzaren onuradunak izan dira 44 Udal, 8 kontzeju eta udalaz gaindiko entitate bat.

Dirulaguntza hauek gizartean duten eragina hainbat alderditan ikus daiteke: a) Toki-administrazioko erakundeen esku dagoen dokumentu-ondare aberatsa “betiko” antolatuta gelditzen da eta, beraz, eskuragarri b) Diru-laguntza deialdien bidez, toki-erakundeak dokumentu-ondareaz arduratzera eta sentsibilizatzen dira, eta behin antolatuta edukita funts horiek gizartera hedatzera: digitalizatutako dokumentuak irudiak Interneten bidez edota erakusketen bidez zabalduz, Kultura Ondarearen kontserbazioa eta hedatzea bultzatzen da; c) Artxiboen hobekuntzaren eta sarbide digitalaren bidez entitateek hiritarrei zerbitzu hobea eta gardenagoa eskaini ahal diete d) Entitate txikiak eta ertainak ez dute artxibozainik izaten eta deialdi honek bultzatzen du arlo publikoa eta pribatuaren arteko kolaborazioa, lanek enpresa espezializatuak burutzen baitituzte., gehienetan enpresa txikiak edo erdi tamainakoak; e) Udal-administrazioa administrazio elektronikora egokitzea errazten du, artxiboak diseinuaren eta sailkapenaren hasierako fasetik esku hartzen baitu, eta udal-langileei kudeaketa elektronikoko sistemen funtzionamenduari buruzko aholkularitza ematen die; f) Dokumentu ondarea herritarren eskura jartzen da, eta webgunearen bidez (Dokuklik), munduko edozein txokotara zabaltzen da.

Mota honetako programen arrakasta segida izatean datza. Behin proiektuak abian jarri eta gero, lortutako emaitzak oso onak izaten dira. Ildo horretan, Udal txikiak eta Arbako kontzejuak egiten ari diren ahalegina -bitarteko urriak izanagatik- nabarmendu behar da.

Genero-ikuspegian duen eraginari dagokionez, Aginduan egokitzapenak egin dira, eta 2022an hainbat proiektu aurkeztu dira, deskribapen artxibistikoetan hizkuntza inklusiboa txertatu dutenak.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Udal artxiboa sortzea edo hobetzea	50	46
Funts dokumentalen balorazioa	20	8
Artxibo-dokumentuak digitalizatzea.	20	28
Kudeaketa digitalaren sistemak ezartzea	7	7
Kultura zabaltzeko programak	5	5
Mankomunitateko artxibo-zerbitzuak mantentzea.	3	2

Proiektu askok adierazle bat baino gehiagotan sartzen dira (bitan eta baita hirutan ere).



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Artxibo pribatuak**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren 8koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko dirulaguntzak ezartzen baitira, eta 2022ko ekitaldirako deialdia egiten.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202737e.shtml>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204119e.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak artxibo politikaren atal egonkor bat indartzen du epe luzera: artxibo-funtsen jabe pribatuei laguntzea (Euskal Herriaren historia berezia dela-eta bereziki ugariak baitira).

Helburuei dagokionez, aurreko urteekin alderatuta ez dago aldaketarik: partikular, familia, erakunde, elkarte eta abarrekin lankidetzan aritzea haien jabe goko artxibo funtsak antolatzeko eta ondoren hedatzeko, batez ere, Euskadiko Artxibo Historikoaren webgunearen bidez.

Programa gehien enaitza izaten da artxiboaren inbentarioa, horixe baita baliabide nagusia ondoren kontserbazio edota digitalizazio programak diseinatu ahal izateko.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegi izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko ekitaldirako aurrekontuetan 170.000 euroko diru kopurua bideratu zen programa honetara, 14 eskatzaileek 20 eskaera aurkeztu zituzten eta, horietatik 17 proiektu diruz lagundu ahal izan ziren. Edonola ere, aurkeztutako programa bakoitzeko diru-laguntzak ez du gainditu 20.000 euroko zenbatekoa. Mota honetako programa baten arrakasta (kontuan izanda horrek dakarren inpaktua gizartean, eta jasotako eskaeren kopurua eta kalitatea) jarraitzean eta egonkortasunean datza. Helburua da artxibo jabeak eta erakunde partikularrak (fundazio, sindikatu, elkarte, etab.) animatzea haien artxiboak zaintzera eta erabilgarri jartzera, gizarte osoaren mesedetan. Lortutako emaitzak oso pozgarriak direla iruditzen zaigu, egiten den inbertsioa kontuan hartuta. Lortutako emaitza batzuk hauexek dira: 1) Betiko antolatzen da jabe pribatuen esku dagoen ondare dokumental aberatsaren zati bat; 2) Ekimen pribatua sektore honetan inbertitzera animatzen da; 3) Sare publikoetan ondarearen alde oso esanguratsuak integratzen dira, eta herritarren esku jartzen; 4) Jaurlaritzaren ikerketa zerbitzua aberasten da Internet bidez, Dok klik jada funtsezko erreferentzia bihurtu da Euskadiri buruzko edozein ikerketa egiteko orduan.



Programak genero-ikuspegian duen eraginari dagokionez, deialdiaren kudeaketan egokitzapenak egin ba dira ere genero-ikuspegia sustatzeko (puntuazio-irizpideak), emaitzak, halaber, mugatuak dira, dirulaguntzaren eremua – artxibo historikoak – dela eta aurreko urteetako emaitzen jarraipena dira: 2022an, emakumeekin zuzenean lotutako hiru artxibo-proiektu diruz lagundu dira.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Artxibo-funtsak antolatzea eta artxibo-tratamendua hobetzea	11	11
Informazioa zabaltzea eta Badator informazio-zerbitzuan integratzea	8	10
Artxibo-funtsak digitalizatzea	10	12

Proiektu batzuk (14) adierazle bat baino gehiagorekin elkar daitezke.



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Irakurketa sustatu**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailaren 6koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien zerbitzuen erabilera eta irakurketa sustatzeko dirulaguntzak, eta horien deialdia iragartzen baita 2022. urtean.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/07/2203160e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/12/2205310e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak uste du lehentasuna duela irakurzaletasuna sustatzea helburu duten jarduera guztiak diruz laguntzea, batez ere haur eta gazteen artean egiten direnak, eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegietan kultura eta liburutegi-zerbitzuak hedatzeko jarduerak bultzatzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Araututako laguntzak eskuratu ahal izateko, 2022an, 151 eskabide baliodun aurkeztu ziren guztira, aurreko ekitaldian baino 7 gutxiago.

Kontabilizatutako 151 eskaeretatik 131 zuzen justifikatu ziren, hau da, aurkeztutako eskabide guztien % 86,75 (aurreko urtean % 79,11 izan zen) eta 17ri minorazioa aplikatu zitzaion. Eurotan, 330.000,00 euroko aurrekontu-zuzkiduratik 300.784,00 euro justifikatu ziren, hau da, emandakoaren % 91,14.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Liburuari lotuta erakusketen, hitzaldien, etab.-en antolaketa	40	123
Literatura-lehiaketan antolaketa	60	15
Liburuetara eta liburutegietara hurbiltzeko kanpainak	85	339



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Liburutegietarako liburu funtsak**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailearen 27koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskadiko liburutegietarako liburu-funtsak sortu edo/eta berritzeko dirulaguntzen 2022ko deialdia egiten duena.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/08/2203644a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2205211e.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza honen programak hiru lerro ditu:

- Liburutegi sortu berrietarako, lehen funtsak erosteko.
- EIPSren barruan ez dauden liburutegietarako, funtsak berritzeko.
- EIPSren barruan dauden liburutegietarako liburu berriak eros dezaten.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen duten liburutegi publikoak liburu-funtsez hornitzea Sareko liburutegietako liburu-funtsak berritu eta handitzeak, liburutegietara informazio bila bertaratzen diren erabiltzaileen beharrak asebetetzea ahalbidetzen du. Irakurketarako materialen eskaintza erakargarriagoa bihurtzen da erabiltzaileentzat eta eragin zuzena du liburutegietako maileguren eta liburutegietako bazkide kopurua handitzean.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Liburutegi berri bat aurkeztu zen sortu-berrientzako programa honetara eta diru-laguntza eman zaio.

EIPSren barruan ez dauden 3 liburutegi aurkeztu ziren eta bati laguntza ukatu zaio baldintza guztiak bete ez zituelako.

Funtsak berritzeko 192 eskaera aurkeztu ziren eta denak onartuak izan ziren eta diru-laguntza jaso zuten. Horri esker, liburutegiek, beraien funts-katalogoak berritu eta aberastu egin dituzte, argitalpen berrienak erabiltzaileen eskura jarriz. 2022an 29.799 izenburu berri gehitu dira katalogora.

Bestalde, autoritateen katalogazioan T375 etiketa betetzen hasi da, obra bat idatzi duen pertsonaren generoa adierazten duena.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Liburutegi sortu berrientzako liburu sortak	1	1
EIPSren barruan ez dauden Liburutegiak hornitzeko	3	2
EIPSren barruan dauden liburutegietako funtsak berritu eta handitzeko	30.000	29.799



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Teknologia berriak liburutegietan**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edota garatzeko dirulaguntzen oinarriak eta laguntza horien deialdia iragartzen baita.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202861e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204607e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programari esker, liburutegiek elementu teknologikoak eskuratzen eta/edo berritzen dituzte.

Helburua da liburutegi publikoetan informazio teknologien ezarpena eta garapena ahalbidetzen dituzten ekintzak laguntzea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegiaren izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022rako dirulaguntzen agindu honetarako 350.000,00 euro bideratu ziren, eta banatu ziren 87 eskaeren artean, Aginduan ezarritako irizpideei jarraituz.

Dirulaguntzaren 350.000 eurotatik % 98 gauzatu da (342.750,77 €) eta 7.249,23 € baino ez dira erabili gabe utzi, 3 liburutegik justifikatu dutelako hasieran aurrekontuan sartutako gastua baino txikiagoa.

Teknologia berrietarako emandako dirulaguntzekin, liburutegiek Interneteko kontsulta-guneak handitzen jarraitzen dute, izapide elektronikoak egiteko aukera ematen dute, eten digitala murrizten dute, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daudenentzako laguntzak ematen dituzte eta 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzen laguntzen dute. Gainera, irakurketa digitalean laguntzen dute ebook-ak erosiz, herritarrei emateko eta, horrela, adinekoei edo ikusteko zailtasunen bat dutenei beren irakurketen letren tamaina egokitu ahal izateko, liburutegiek Agindu honen bidez eskuratutako gailuei esker.

2022ko estatistiketan oinarrituta, liburutegiek erositako elementuei esker, modu eraginkorragoan egin ahal izan dute beren lana, eta maileguak, erabiltzaile kopurua, katalogorako bisitak eta liburutegi arteko maileguak handitzea lortu dute. Zehazki, liburutegiko langileek 23.2708 ale eman dituzte altan, 39.300 bazkidek eman dute izena (iaz baino 11.750 gehiago), 2.409.612 mailegu egin dituzte (2021ean baino 137.274 gehiago), 300.664 mailegu-eskaera egin dizkiete beste liburutegi batzuei (2021ean baino 19.950 gehiago) eta 300.6334 kontsulta jaso dira katalogoan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Ordenagailuak berritutako kopurua	160	162
Eskanerrak, irakurgailu optikoak eta abar berritutako kopurua	400	343



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kultura ondarea digitalizatzea**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailaren 27koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu, kontserbatu eta OAI-PMH biltegien bitartez hedatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen baita eta 2022ko ekitaldirako deialdia egiten den.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2203822e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/12/2205360e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua, euskal kultura-ondarea katalogatzeko, digitalizatzeko, kontserbatzeko eta OAI-PMH gordailuen bidez online zabaltzeko dirulaguntzak ematea da.

Eragile publiko eta pribatuek beren ondarea digitalizatu eta jendearen eskura jar dezaten sustatu nahi da, bai beren gordailuaren bidez, bai Euskarianaren bidez, euskal kultura eremu digitalean zabaltzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

200.000 euro bideratu dira eta 58.112 euro esleitu dira. 6 programa aurkeztu dira; guztiak onartu dira eta guztiek jaso dute dirulaguntza.

Aurkeztutako proiektuen kopurua nabarmen jaitsi bada ere, lehendik digitalizatuta ez zeuden baliabideak lortu dira, eta mota askotako eragileak, publikoak zein pribatuak, inplikatzeko lortu da ere, euskal-kultura digitalizatu, babestu, hedatu eta eskuragarri egiteko lanean.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako dirulaguntza kopurua	-	6
(Sortutako objektu digital kopurua)	25.000	10.998 *

\* Behin-behineko kopurua da, onuradunek aurkeztutako proiektuetan oinarritua, deialdiaren esparruan egindako lanak entregatzeko epea amaitu ez baita.



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Liburutegietarako liburu funtsak (MRR)**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko irailaren 28koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Europar Batasunak Next Generation EU funtsen bidez finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan liburutegietako funtsak handitzeko eta/edo berritzeko dirulaguntzak emateko laguntzak arautzen eta deitzen dituena.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204429e.shtml>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/12/2205810e.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programa honen helburua ekonomia suspertzeko plan espezifikoak hedatzea da eta pandemiak jarduera ekonomikoan izan duen eraginari aurre egitea. Dirulaguntza honen azken helburua irakurketa-indizea handitzea da, liburutegi publikoetan paperezko funtsen zuzkidura handituz, erabiltzaileek liburu-eskaintza handiagoa izan dezaten, batez ere nobedadeak. Helburu hori Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko C.24.I02.P04 zk.ko inbertsioan aurreikusitako neurria garatuz gauzatzen da. Neurri horren helburua kultura-industriaren balioa handitzea da eta, besteak beste, lurraldea biziberritzeko eta lurralde- eta gizarte-kohesioa hobetzeko inbertsioak biltzen ditu, kultura, iraunkortasuna eta sektorearen sendotzea erraztuz. Programa honen onuradun izan dira liburutegi publikoen titular diren toki-erakundeak, baldin eta Espainiako Liburutegien Direktorioan sartuta badaude liburutegi publikoen tipologiaren barruan.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Guztira 136 toki-erakunde aurkeztu dira, eta horietako batzuek hainbat sukurtsal dituzte. Guztira 202 liburutegik jaso dute dirulaguntza. Orain arte 4.081 liburu erosi dira. Liburuak erosteko eta dirulaguntza justifikatzeko epea apirilaren 30ean amaituko da. Liburutegiek erositako liburu guztiek katalogatuta eta mailegatzeko moduan egon beharko dute abenduaren 31 baino lehen.

Programa honi esker, asko ugaritu dira paperezko formatuko liburuak, eta, beraz, RLPren erabiltzaileek azken argitalpen-nobedadeak irakurtzeko aukera izango dute. Horrek eragin positiboa du liburutegien erabileran eta liburutegietara informazio eta entretenimendu bila joaten diren pertsonen kopuruan.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Dirulaguntza jaso duten liburutegien kopurua	212	202
Liburutegi bakoitzak jasotako diru kopurua	Liburutegi bakoitzeko 1.500 € gutxienez	1.500 € liburutegi bakoitzeko
Erositako liburuen kopurua, guztira	25.896	Epea zabalik dago 2023ko apirilaren 30era arte



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Musika**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko martxoaren 29koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez 2022ko ekitaldiko musika-jarduera profesionaletarako dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten baita. (EHAA 74 zk., 2022ko apirilaren 13koa)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201660e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204291e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez, musika jarduera profesionalak sustatu nahi dira, hain zuzen ere, Partituren edizio inprimatuak, Musika proiektu unitarioak, Musika ekimen enpresarialak, Zuzen-Zuzenean zirkuitua eta Musika zikloak.

2022an programa honen zenbateko orokorra 840.000 eurokoa izan zen. Kopuru hori modalitate desberdinen arabera honela banatu zen:

- 40.000 € - Partituren edizioa
- 240.000 € - Musika proiektu unitarioak
- 290.000 € - Musika ekimen enpresarialak
- 210.000 €, Zuzen-zuzenean zirkuitua
- 60.000 €, Musika zikloak

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Deialdi honetarako aurreikusita zeuden baliabide ekonomiko guztiak erabili dira, eta haren bitartez 77 pertsonak edo entitatek jaso dute musika jardueretarako laguntzak, beraz, esan ahal dugu, programa oso eraginkorra dela.

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Emandakoak, Aurrekontua eta Emandako behin-betiko kopurua.

- Partiturak argitaratzeko: 7, 7, 40.000 €, 42.000 €
- Banakako proiektuak: 60, 47, 240.000 €, 280.000 €
- Ekimen enpresarialak: 17, 16, 290.000 €, 240.000 €
- Zuzen-zuzenean zirkuitua: 11, 11, 210.000 €, 216.000 €
- Musika zikloak: 4, 4, 60.000 €, 62.000 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Lagundutako musika proiektu kopurua urtean	75	85





## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Arte eszenikoen sustapena**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko otsailaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022ko ekitaldian arte eszenikoak sustatzeko programetarako dirulaguntzak emateko modua arautu eta deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/03/2201066e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/06/2202452a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2022/05/2202093a.pdf>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Arte eszenikoen arloan (antzerkia eta dantza) oro har arte eszenikoen sustapenean eta, bereziki, antzerkia eta dantza prestatu, sustatu eta erakustean esku hartzen duten programak biltzen dituen deialdia.

Antzerkiko eta dantzako profesionalen prestakuntza sustatuz, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaz erraztuko duen bide bat arbitratuz eta dantza-ikuskizunen eta kaleko arteen erakustaldia bultzatuz, sektorearen profesionalizazioan aurrera egin nahi da, eta herritar guztientzako kultur eskaintza irisgarria eta kalitatezkoa bermatu.

2020an, programa honetarako guztizko zenbatekoa 630.000 eurokoa izan zen, honela banatuta modalitateen artean:

A) Arte eszenikoetako profesionalen prestakuntzarako: 160.000 euro.

B) Arte eszenikoak sustatzeko proiektuetarako: 160.000 euro.

C) Arte eszenikoak kalean erakusteko programak garatzeko: 255.000 euro.

D) Sarearen dantza zirkuituaren garapenerako: 250.000 euro.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Lau modalitateetan aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura guztia erabili da.

Honako datu hauek jaso dira, hurrenkera honetan: modalitatea, Eskaerak, Dirulaguntzen kopurua, Aurrekontua eta Esleitua

- Arte eszenikoetako profesionalen etengabeko prestakuntza: 20, 16, 184.900 €, 184.900 €



- Arte eszenikoak sustatzeko proiektuak: 13, 11, 160.000 €, 160.000 €
- Arte eszenikoen erakustaldia kalean: 86, 86, 255.000 €, 255.000 €
- Sarea dantza-zirkuitua: 46, 46, 250.000 €, 250.000 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Deialdi zein izendunen bitartez diruz lagundutako etengabeko formakuntzarako eta profesionalen laguntzarako proiektuen (arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak, musika, ikusizko arteak eta liburua) kopurua urtean.	80	14
Ikuslegoa sortzeko, fidelizatzeko eta ugaritzeko lagundutako proiektu kopurua urtean	10	8
SAREAn programatutako dantza funtzioen kopurua.	210	110



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Arte eszenikoen produkzioa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko martxoaren 1ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022. urtean arte eszenikoak ekoizteko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/03/2201384e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202966e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/07/2203378e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez, jarduera eszeniko profesionalak sustatu nahi dira, ekoizpen eszenikorako beharrezkoak diren prozesuak babestuz, zehazki.

Diru-laguntzen programa honek 4 modalitate ditu, eta sektorearen beharrei behar bezala erantzun nahi die. Ekoizpenak egiten laguntzea, konpainia sortu berriek lehen ekoizpenak egin ahal izatea ahalbidetzea, finkatutako konpainiei esparru egonkorragoa eskaintzea edo hitzartutako zirkuitua duten ekoizpenei diruz lagundutako ekoizpenen zabalkundea bermatzea.

2022an, programa honetarako guztizko zenbatekoa 1.580.000 eurokoa izan zen, honela banatuta modalitateen artean:

- Hitzartutako zirkuitu duten produkzioak: 225.000 euro (Antzerkia: 160.000; Dantza: 65.000)
- Produkzioa I eta banaketa: 175.000 euro (Antzerkia: 75.000; Dantza: 100.000)
- Produkzioa II eta banaketa: 280.000 euro (Antzerkia: 160.000; Dantza: 120.000)
- Bi urteko jarduera eszenikoa: 700.000 euro (Antzerkia: 467.000; Dantza: 233.000)

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Agindu honetara bideratutako baliabide ekonomiko guztiak erabili dira. 4 laguntza-modalitateen bidez, 23 antzerki-proiektuek eta 16 dantza-proiektuek, eszenaratzea ahalbidetu duten laguntzak jaso dituzte.

Honako datu hauek jaso dira, hurrenkera honetan: modalitatea, eskabide-kopurua, emandako laguntza-kopurua, hasierako zenbatekoa, emandako zenbatekoa.

- Hitzartutako zirkuitu duten produkzioak: 13, 11, 225.000 €, 185.000 €
- Produkzioa I eta banaketa: 41, 16, 175.000 €, 328.000€

- Produkzioa II eta banaketa: 44, 12, 280.000 €, 280.000 €
- Bi urteko jarduera eszenikoa: 18, 7, 700.000 €, 700.000 €

Emandako dirulaguntzak modalitate horri dagokion aurrekontu-zuzkidura gaintzen du, adierazitako zuzkidura beste modalitate batzuetan agortu gabeko kopuruarekin handitu delako.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako arte eszeniko proiektu kopurua urtean	80	116



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ikusentzunezko garapena**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 25ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022. urtean, ikus-entzunezkoen arloan proiektuen garapenaren aldeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202542e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/12/2205528e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburu nagusia ikus-entzunezkoen produkzioaren aurreko jarduerak sustatzea da eta jarduera horien artean nabarmentzekoa da gidoiaren garapena, ikus-entzunezkoen sektoreak ekoizten dituen obren kalitate eta bideragarritasun handiagoa bultzatuz.

Dirulaguntza hauen xedea:

- Zinema edota telebistarako lanak: banakako proiektuak eta sailak izan daitezke, fikziozkoak, animaziokoak zein sortze-dokumentalak.
- Multimedia-lanak: eduki artistiko eta kulturaleko proiektuak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegiaren izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 400.000 eurokoa izan zen.

Honako datu hauek jaso dira, hurrenkera honetan: modalitatea, eskabide-kopurua, emandako laguntza-kopurua, hasierako zenbatekoa, emandako zenbatekoa:

- Film luzeen garapena: 39, 16, 200.000 €, 325.363 €.
- Serie eta miniserieen garapena: 7, 2, 200.000 €, 74.637 €

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako ikus-entzunezko proiektu kopurua urtean	45	18



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Ikusentzunezko produkzioa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko martxoaren 24koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez iragarri eta arautzen baitira ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatzeko 2022. urteko dirulaguntzak.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201609e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/12/2205527e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/12/2205811e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburu nagusia kulturaren ikuspegitik gure lurraldean hain garrantzitsu eta beharrezkoa den ikus-entzunezko azpiegitura finka dadin sustatu eta laguntzea da. Horretarako, deialdi honen bidez, ondorengo ekimenak sustatzen dira:

## 1.-Film luzeen produkzioa:

- a) Zinemarako diren fikziozko film luzeak: ikus-entzunezko obra, hirurogei minutu edo gehiagoko iraupena duena eta zinema-aretoetan merkatal ustiapenerako dena.
- b) Aurrekontu txikiko zinemarako diren fikziozko film luzeak: ikus-entzunezko obra, hirurogei minutu edo gehiagoko iraupena duena eta zinema-aretoetan merkatal ustiapenerako dena, eta aurrekontua 300.000 eurokoa baino txikiagoa baldin bada eta honako baldintzetako bat betetzen badu:
  - Jatorrizko bertsioa euskaraz izatea
  - Zuzendariaren lehenengo edo bigarren film luzea izatea.
- c) Zinemarako diren animaziozko film luzeak: ikus-entzunezko obra, hirurogei minutu edo gehiagoko iraupena duena eta zinema-aretoetan merkatal ustiapenerako dena.
- d) Film luze dokumentalak: Errealitatetik hartutako gaia duten proiektuak; lanak originala izan behar du eta gai zehatz bati buruzko ikerketa edo azterlana, gutxienez merkataritza-ordu beteko iraupena dutenak eta zinema edota telebistarako direnak.

2.- Film laburren produkzioa: Edozein euskarritan egindako filmak hartuko dira, iraupen gomendatua 30 minutu baino gutxiago dutenak.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 2.430.000 eurokoa izan zen. Hala ere, hitzarmen bat sinatu zen ICAArekin, gaztelania ez den beste hizkuntza koofizial batean zinema- eta ikus-entzunezko industriaren ekoizpena, banaketa eta sustapena sustatzeko. Hitzarmen horri esker, hasierako zuzkidura 760.395 eurotan handitu zen. Azken zenbateko hori jatorrizko bertsioa euskaraz duten proiektuetarako da. Azken zuzkidura 3.190.395 eurokoa da.

Banaketa honako hau izan zen: Hurrenez hurren: Modalitatea: Eskaerak, Baiezkoak eta Emandakoa:

- Produksioa, fikziozko film luzeak: 19, 7, 2.311.711 €.
- Produksioa, aurrekontu txikiko fikziozko film luzeak: 0, 0, 0 €.
- Produksioa, animaziozko film luzeak: 1, 1, 250.000 €.
- Produksioa, film luze dokumentalak: 22, 9, 368.684 €.
- Produksioa, film laburrak: 52, 15, 260.000 €.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako ikus-entzunezko proiektu kopurua urtean	45	32



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Arte plastikoak eta ikusizkoak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko otsailaren 15ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Arte Plastiko eta Ikusizkoen eremuan jarduerak sustatzeko eta garatzeko 2022ko ekitaldiko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/03/2201064e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/07/2203296e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua 2022an zehar arte plastiko eta ikusizkoen arloan burutu diren jardueretarako dirulaguntzak ematea izan da. Diruz laguntzen diren modalitateak honako hauek dira:

1.- Sustapen-zabalkundearen modalitatea: 55.000 €

2.- Argitalpenen modalitatea: euskarri desberdinak erabiliz egindako argitalpenak egitea, beren xedeak Euskal Herriko arte garaikidea zabaltzea eta bertako artistak eta haien lana sustatzea izanik. 135.000 €

3.- Sorkuntza-ekoizpenaren modalitatea: proiektuak egitea, ardatza baldin bada arte ekoizpena edo ikerketa proiektuak lantzea. 274.000 €

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Programa honen helburua, hiru modalitateen bitartez, ikusizko arteen arloko zabalkunde eta ekoizpen beharrei erantzuten saiatzea da, hiru modalitateak, zabalkundea, argitalpenak eta ekoizpena, oso finkatuta daude eta.

Hurrenez hurren, honako datu hauek jaso dira: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa

- Sustapen-zabalkuntza: 14, 5, 55.000 €, 54.991€

- Argitalpenak: 47, 15, 135.000 €, 135.000€

- Ekoizpena: 123, 41, 274.000 €, 274.000 €



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ikusizko arteen zabalkunderako lagundutako proiektu kopurua urtean	22	20
Ikusizko arteetan sorkuntza eta ekoizpenerako diruz lagundutako proiektu kopurua urtean	40	41



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Gure Artea sariak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko martxoaren 23koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko Gure Artea sariak arautu eta horietarako deialdia egiteko dena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201518e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/07/2203295e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua Arte Plastikoak eta Ikusizkoak sustatzea da. Haien bitartez saritutakoak egindako lana aitortu nahi da eta Euskadiko arte garaikidean eta kulturaren izan duten ekarpena aitortu. Hiru sari banatzen dira, modalitate bakoitzeko bana. Deialdia urtero argitaratzen da

Modalitateak eta zenbatekoak:

- a) Ibilbide artistikoa aitortzeko saria: artista saritzen da bere ibilbide artistiko osoagatik. 20.000 €
- b) Sorkuntza-lana aitortzeko saria: artista saritzen da azken urteetan egindako lanarengatik. 18.000 €
- c) Ikusizko arteen arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria: edozein agente saritzen da Euskal Autonomia Erkidegoko arte plastiko eta ikusizkoen arloan egindako ekarpenagatik. 18.000 €

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022ko saridunak honako hauek izan dira:

- a) Ibilbide artistikoa aitortzeko saria: Mari Puri Herrero
- b) Sorkuntza-lana aitortzeko saria: Nora Aurrekoetxea.
- c) Ikusizko arteen arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria: Consonni

2022ko sari-emate ekitaldia Tabakaleran antolatu da urriaren 5ean.

Aurreikusitako diru-kopurua esleitu egin da: 56.000 euro.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitzak
Emandako sarietan emakumezko saridun kopurua urtean	2	2
Emandako sarietan gizonezko saridun kopurua urtean	1	0
Aurkeztutako sarietako emakumezko hautagai kopurua urtean	5	6
Aurkeztutako sarietako gizonezko hautagai kopurua urtean	10	6



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Literatura argitalpenak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko martxoaren 15ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022. urtean literatura argitalpenetarako dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201459e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204120e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Kalitatezko euskal literaturaren ekoizpena eta euskal argitaletxeen sektorea mantentzea bultzatzen da dirulaguntza horien bidez.

2022an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 700.000 eurokoa izan da eta dirulaguntza modalitate bakoitzera honako kopuruak zuzendu dira:

- 515.000 euro euskarazko argitalpenak
- 125.000 euro gaztelaniazko argitalpenak
- 60.000 euro euskarazko audio liburu argitalpenak

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Programa honetako bi modalitateekin lortu da literatura-liburu kopuru handia merkaturatzea. Horien artean asko dira jatorriz euskaraz edo gaztelaniaz egindakoak, eta honek ekartzen du euskal kulturaren zabalkundea.

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- Euskarazko argitalpenak: 23, 18, 515.000 €, 540.439 €
- Gaztelaniazko argitalpenak: 15, 12, 125.000 €, 125.000 €
- Euskarazko audio liburuak: 4, 4, 60.000€, 34.561 €

Genero irizpideak aplikatu dira proiektuak baloratzean

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Lagundutako argitalpen proiektu kopurua urtean	400	500



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Euskadi Literatura sariak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko martxoaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022 urtean Euskadi literatura-sariak arautu eta horretarako dei egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201483e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2204711e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadi literatura-sariak, aurreko urtean argitaratutako literatura lanen kalitatea saritzen dute, horrela literaturaren alorreko idazle, itzultzaile eta ilustratzaileen sorkuntza sustatzeko.

2022an programa honen gehieneko zenbateko orokorra 150.000 eurokoa izan da

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Deitutako sei modalitateetan esleitu dira sariak:

- Euskarazko literatura: Uxue Apaolazaren Bihurguneko nasa.
- Gaztelaniazko literatura: Edurne Portelaren Los ojos cerrados.
- Euskarazko haur eta gazte literatura: Leire Bilbaoren Barruko hotsak.
- Euskarazko literatura itzulpena: Koro Navarroren Fiesta.
- Literatura lanaren ilustrazioa: Maite Larrayozen Irimola.
- Euskarazko saiakera: Irati Jimenezen Begiak zabalduko zaizkizue.
- Gaztelaniazko saiakera: Teresa Maldonadoren Hablemos claro.

Zazpi saridunak emakumeak izan dira

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Emandako Euskadi literatura sari kopurua Urtean	7	7



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Irudi sorkuntza**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko abenduaren 21ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022 ekitaldian zehar dirulaguntzak emateko erregimena arautzen eta iragartzen duena, komikiak, nobela grafikoak edo irudidun liburuak sortzeko.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106422e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/04/2201578e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez irudi sorkuntza sustatu nahi da, azken helburua, gaur egun gure Herrialdean gorakada handia duen sormen-sektore hori finkatzea bultzatzea eta laguntzea da.

2022ko ekitaldian gehieneko zenbateko orokorra 105.000 eurokoa izan da, dirulaguntza modalitate bakoitzera honako kopuruak zuzendu direlarik:

- 60.000 euro komiki edo nobela grafiko bat argitaratzea helburu duten ilustrazio-proiektuak sortzeko.
- 45.000 euro irudidun album edo liburu bat argitaratzea helburu duten ilustrazio-proiektuak sortzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Programa honetako bi laguntza modalitateen bitartez Euskadiko kultura ondarea osatuko dituen 7 obra berri sortzen lagundu dugu: 4 komiki edo nobela grafikoak eta 3 album edo irudidun liburuak.

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- Komikiak edo nobela grafikoak: 17, 4, 60.000 €, 60.000 €
- Albumak edo irudidun liburuak: 13, 3, 45.000 €, 45.000 €

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Emandako dirulaguntzen kopurua	7	7



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Sorkuntzako kultura guneak (Sorgune)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 24koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022. urtean Kultura-sorkuntza artistikoa babesten eta sustatzen duten kultura-gune independenteentzako dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena (Sorgune).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202541e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204176e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204332e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez eragin nahi da kultura-edukiak ekoizteko formetan, egituretan eta eran berrikuntza sustatzeko, betiere oinarri hartuta sormena, ikerketa, esperimentazioa eta diziplina-arteko elkarrekintzaren sustapena. Labur esanda, dirulaguntzak emateko deialdi honen xedea da, arte-berrikuntzan espezializatutako zentroak sustatzea eta berrikuntza, diziplinartekotasuna eta alde anitzeko elkarriketa oinarri dituen sormen- eta ekoizpen-eremu bat bultzatzea.

2022ko ekitaldian gehienezko zenbateko orokorra 560.000 eurokoa izan da.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Programa honetako laguntzen bitartez 6 zentro lagundu dira.

Hurrenez hurren: Eskerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa: 20, 6, 560.000 €, 560.000 €

Sorguneetan partaideak emakumeak izan dira nagusiki.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Sorkuntza artistikoko espazioetan eskainitako egoitza kopurua urtean, tipologiaren arabera.	150	200
Lagundutako sorkuntza artistikoko espazioetan ostatu hartu edo parte hartu duten pertsona kopurua urtean.	750	6.000





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Bitartekotza eta berrikuntza kultura eta gizarte arloan (Bitartez)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko abuztuaren 30ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022. urtean kultura eta gizarte arloetako bitartekaritza- eta berrikuntza-proiektuetarako dirulaguntzak onetsi eta haien deialdia egiten duena (Bitartez deialdia).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204027e.pdf>

Hutsen zuzenketa: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204118e.pdf>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/01/2300431e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Bitartekaritza eta sare-lanaren bidez ikerketarekin, berrikuntzarekin eta kultura-arloko adierazpen garaikideekin konprometituta dauden kultura eta gizarte arloetako bitartekaritza- eta berrikuntza-proiektuei bideratutako dirulaguntzen deialdia egitea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

50 eskabide aurkeztu dira, eta horietatik 25 eman dira. Aurrekontu-zuzkidura agortu egin da.

Aurreko edizioen aldean, proiektuetan hobeto heldu zaio kultura- eta gizarte-bitartekotza kontzeptuari, eta horrek Balorazio Batzordea osatzen duten kanpoko ebaluatzaileen lana zentratu eta erraztu du. Programak gizartean duen eraginari dagokionez, positibotzat jo da, nahiz eta alde nabarmenak egon proiektu batzuen eta besteen artean.

Deialdiaren baldintzapenaren eta baremazio-sistemaren helburua gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra lortzea da, bai proiektuak prestatzeari eta gauzatzeari dagokionez, bai xedebiztanleriari dagokionez. Halaber, berdintasun-irizpideak aplikatu dira Balorazio Batzordea egiteko orduan.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lagundutako proiektuak. Kopurua	25	25



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Kultura sorkuntza**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko urtarrilaren 18koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022ko ekitaldian dirulaguntzak emateko araubidea arautzen eta iragartzen duena, kultura-arloko sorkuntza-lanetarako.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/01/2200478e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/05/2202303e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez kultura sorkuntza sustatu nahi da, antzerkirako testuak, gidoi zinematografikoak, musika-konposizioak egiteko eta gerora garatuko diren produktu eta prozesu artistikoen interesa eta bideragarritasuna ebaluatzeko aukera ematen duten proiektuak.

2022ko ekitaldian gehieneko zenbateko orokorra 354.000 eurokoa izan da, dirulaguntza modalitate bakoitzera honako kopuruak zuzendu direlarik:

- 52.000 euro antzerkirako testuak sortzeko.
- 104.000 euro gidoi zinematografikoak sortzeko.
- 64.000 euro musika-konposizioak sortzeko.
- 40.000 euro gazteei zuzendutako literatura testuak sortzeko.
- 40.000 euro ipuinak eta eleberri motzak sortzeko.
- 54.000 euro koreografiak sortzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Programa honetako sei laguntza modalitateen bitartez Euskadiko kultura ondarea osatuko dituen 44 obra berri sortzen lagundu dugu: 8 antzezlan berri, 8 gidoi zinematografiko, 15 musika-konposizio, gazteentzako 5 literatura testuak, 5 ipuin edo eleberri motzak eta 9 koreografia.

Hurrenez hurren, Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- Antzerkirako testuak: 46, 8, 52.000 €, 52.000 €
- Gidoi zinematografikoak: 68, 8, 104.000 €, 104.000 €
- Musika-konposizioak: 33, 12, 64.000 €, 64.000 €



- Gazteentzako literatura testuak: 19, 5, 40.000 €, 40.000 €

- Ipuinak eta eleberri motzak: 16, 5, 40.000 €, 40.000€

- Koreografiak: 25, 9, 54.000 €, 54.000 €

Gazteentzako literatura-testuak eta Ipuinak eta eleberri motzak modalitateetan ez da beharrezkoa izan emakumeentzako erreserbak aplikatzea, berez sartu direlako

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Sortutako antzerki testu berri kopurua urtean	8	8
Sortutako gidoi zinematografiko kopurua urtean	8	8
Egindako musika sorkuntza kopurua urtean	14	12
Literaturan diruz lagundutako proiektu kopurua urtean	10	10
Lagundutako koreografia kopurua urtean	9	9



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

##### Jaialdiak

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko urriaren 18koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022. urtean kultura-arloetako jaialdiak antolatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta haien deialdia egiten duena.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204606e.pdf>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/01/2300432a.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kultura-arloko jaialdiak antolatzeko, espezializazio- edo berezitasun-maila handikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko kulturaren eremuan bereziki interesgarriak, 2022ko ekitaldiko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea eta deialdia egitea, bereziki kultura-arlo hauetan: musika, arte eszenikoak, liburugintza, ikus-entzunezkoak eta ikusizko arteak.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegiaren izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

57 eskabide aurkeztu dira, eta horietatik 27 eman dira eta aurrekontu-zuzkidura agortu egin da; alabaina, eskatzaileetako batek uko egin zion gerora.

Proiektuetan aniztasun nabarmena ikusten da erakundearen profesionalizazio-mailan, eta horrek, deialdian biltzen diren tipologiaen aniztasunari gehituta, kudeaketa eta Balorazio Batzordea osatzen duten kanpo-ebaluatzaileen lana zaildu ditu. Artistentzat aurreikusitako ordainsarrietan ere desberdintasun handiak ikusi dira.

Programak gizartean duen eraginari dagokionez, positibotzat jo da, nahiz eta alde nabarmenak izan proiektu batzuen eta besteen artean.

Jaialdiak gauzatzean, proiektuan aurkeztutako alderdiak betetzen direla egiaztatzeko bitartekoak falta dira, bereziki euskararen erabilerari dagokionez eta sexu bataren eta bestearen presentziari dagokionez bai artisten artean, bai ikusleen artean.

Deialdiaren baldintzapenaren eta baremazio-sistemaren helburua gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra lortzea da, bai proiektuak prestatzeari eta gauzatzeari dagokionez, bai xedebiztanleriari dagokionez. Bestalde, berdintasun-irizpideak ere aplikatu dira Balorazio Batzordea egiteko orduan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Lagundutako jaialdiak. Kopurua.	21	27



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Alderdi politikoen fundazioak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko martxoaren 8koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoei lotutako fundazio eta elkarteentzat 2022ko dirulaguntza deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/03/2201385e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/08/2203645e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2020001918>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea, alde batetik, pentsamenduaren arlo guztiak –batez ere, politikoa, soziala eta kulturala- aztertzeke, ikertzeke eta garatzeko askotariko proiektu, programa edo jarduerak bultzatzea eta sustatzea da, eta beste alde batetik, Eusko Legebiltzarrean ordezkariak diren alderdi politikoei lotura duten fundazio eta elkartei jarduera horiek gauzatzeko dituzten funtzionamendu-gastuak finantzatzen laguntzea.

2022ko ekitaldian, dirulaguntza hauek finantzatzeko guztizko aurrekontu-zuzkidura berrehun eta laurogei mila eurokoa izan da (280.000 €).

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Deialdi honetarako aurreikusitako baliabide guztiak, pentsamenduaren arlo guztiak –batez ere, politikoa, soziala eta kulturala- aztertzeke, ikertzeke eta garatzeko askotariko proiektu, programa edo jarduerak sustatzen eta gauzaten erabili dira, eta Eusko Legebiltzarrean ordezkariak diren alderdi politikoen fundazioekin lotura duten fundazio eta elkartei jarduera horiek egiteko dituzten funtzionamendu-gastuak finantzatzen laguntzeko erabiliak izan dira.

Aurrekontu osoa esleitu bada ere, likidazio bat egin da, eskabidean aurkeztutako gastu osoa ez justifikatzeagatik. Likidazio horren ondorioz, 21.079,00 euroko kreditua baliogabetu da

Jardueretan parte hartu dutenetatik %66,38 gizonezkoak izan dira.

Alderdi politikoen fundazioen proiektuetan parte hartu duten herritarren kopurua: 1.343.102

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	emaitza
Emandako dirulaguntza kopurua urtean	5	4
Gauzatutako jarduera kopurua urtean	76	86



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Kultura publikoa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko otsailaren 15ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan kulturako publikoak garatzeko proiektuak eta jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta haien deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/02/2200991e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202699e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua Euskadiko Autonomia Erkidegoan kultura arloko ikuslegoa areagotzeko, fidelizatzeko eta ugaritzeko helburu zehatza duten beren-beregizko proiektu eta jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezartzea eta deialdia egitea da.

Dirulaguntzak finantzatzeko kredituaren guztizko zenbatekoa berrehun mila (200.000) eurokoa da.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

COVID 19ren osasun-ondorioak arintzeko hartutako neurrien ondorioz, eta proiektu-tipologia hori gauzatzeko zailtasunak ikusita, 2022ko edizioan 14 eskaera baino ez dira jaso. Horiek guztiak behar bezala sartu ziren epean eta forman, eta balorazio-fasera igaro ziren. 4 eskabidek ez zuten lortu bigarren balorazio-fasera igarotzeko eskatutako gutxieneko puntuazioa; beraz, 8 eskabide baino ez ziren igaro bigarren balorazio-fasera. Horiek guztiak diruz lagundu ziren

200.000 euroko urte anitzeko kreditua osorik gauzatu da, baina eskatzaileetako batek uko egin dio emandako dirulaguntzari ezarritako epean. Diru-laguntza hori 11.650 eurokoa da.

Parte hartzaileen % 60a emakumeak dira.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazleak	Aurreikuspena	Emaitza
Kultura proiektuetan parte hartu duten herritar kopurua:	25.000	4.274 zuzenean /197.939 zeharka





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kultura sustapena eta banaketa**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko maiatzaren 24koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022ko ekitaldian arte eszenikoak, musika, literatura eta arte plastikoak sustatzeko eta banatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202559e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204292e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza honen xedea da 2022eko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte eszenikoak, musika eta literatura profesionala sustatzeko, merkaturatzeko, nazioartekotzeko eta banatzeko dirulaguntzak ematea, betiere dagokion kapituluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Programa honen aurrekontu orokorra 582.000 eurokoa da. Honela banaturik:

-Arte Eszenikoak: 330.000 euro

-Musika: 150.000 euro

-Literatura: 30.000 euro

-Arte Plastikoak: 72.000 euro

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Deialdi honetara bideratutako baliabide ekonomiko guztiak erabili dira, erakunde edo pertsona eskatzaileak helburu.

Jarraian, datu hauek banakatzen dira, hurrenez hurren: Eskabideak, Dirulaguntza kopurua, Hasierako aurrekontua eta Emandako azken zenbatekoa:

-Arte Eszenikoak: 56, 31, 330.00 €, 330.000 €.

-Musika jarduerak: 38, 20, 150.000 €, 150.000 €.

-Literatura: 14, 12, 30.000€, 30.000€.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea: nazioartekotze-poltsen onuradunen kopurua (arte eszenikoak eta literatura)	Aurreikuspena	Emaitza
Arte eszenikoak	25	31
Literatura	25	12



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Zuzeneko musikako eta zinema erakusketetako profesionalak (COVID 19)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko apirilaren 12koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022 urtean zinema-emanaldien eta zuzeneko musika-aretoen kudeaketaren eta zuzeneko musika sustapenaren profesional pribatuei zuzendutako COVID-19 laguntzak arautzen eta deitzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/05/2201907e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/07/2203456e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

COVID-19aren pandemiak eragindako krisiaren ondoriozko diru-sarreraren murrizketaren eraginez 2022rako beraien jarduera profesionalaren jarraipena arriskuan ikusten duten zinema-emanaldien, zuzeneko musika-aretoen kudeaketaren eta zuzeneko musika sustapenaren profesional pribatuentzako dirulaguntzen.

Dirulaguntza horietarako, guztira, 2.000.000,00 euro erabili dira. Zenbateko orokor hori deialdi honetako bi laguntza-modalitateen artean banatuko da, jarraian adierazten den bezala:

- a) Zinema-emanaldien kudeaketako autonomoentzako, enpresentzako eta erakunde profesional pribatuentzako laguntzak: 500.000,00 euro.
- b) Musika-aretoen kudeaketako eta zuzeneko musika sustapeneko autonomoentzako, enpresentzako eta zuzeneko erakunde profesional pribatuentzako laguntzak: 1.500.000,00 euro.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Dirulaguntzen programa honetara bideratutako 2.000.000 euroko zuzkidura orokorretik 1.226.143 euro baino ez dira banatu 25 onuradunen artean, honela banatuta:

- Zinema-emanaldien kudeatzen dituzten 14 pertsona autonomo, enpresa eta erakunde profesional pribatu lagundu dira, 489.500 euro guztira.
- Zuzeneko musika-aretoak kudeatzen dituzten eta zuzeneko musika sustapeneko 11 pertsona autonomo, enpresa eta erakunde profesional pribatu lagundu dira, 736.643 euro guztira.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Lagundutako zinema-emanaldiko profesional pribatuen kopurua	--	14
Zuzeneko musika-aretoak eta zuzeneko musika sustapeneko kudeaketan lagundutako profesional pribatuen kopurua	--	11



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Arte Eszenikoen eta musikalen azpiegiturak (MRR)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko abenduaren 7koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, arte eszenikoen eta musikalen azpiegiturak modernizatzeko eta modu jasangarrian kudeatzeko dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena (Europar Batasunak finantzaturako Next Generation EU Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106441e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202768e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Arte eszenikoen edo musikaren lanbide-jarduera garatzen den azpiegituren modernizazio eta kudeaketa jasangarrira bideratutako inbertsio-proiektuak finantzatzea.

Diruz lagunduko diren proiektuek ekipamendua erosteko eta/edo honako ardatz edo helburu hauetara bideratutako jarduerak garatzeko inbertsioak jaso beharko dituzte:

- a) Ingurumen-erlaldaketa.
- b) Eraldaketa digitala.
- c) Kudeaketa hobetzea.

Deialdiari egotz dakioken gehieneko zenbatekoa 978.349,91 €-koa izango da, 2022ko ekitaldiari dagokiona.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Emaitzak egokitzen jo daitezke, aurrekontuaren ejekuzioa erabatekoa izan da, eta gizartean eragina izan duela estimatzen da.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
--	--	--



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Zinema aretoak modernizatzea (MRR)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko otsailaren 15ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2021-2023 epealdiari dagozkion Euskadiko zinema-aretoak sustatzeko, modernizatzeko eta digitalizatzeko dirulaguntzak ematea arautzen duena eta horretarako deialdia egiten duena, Europar Batasunak finantzatutako Susperraldi, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, NEXT GENERATION EU.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/03/2201065e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204069e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadiko zinema-aretoen berrikuntzarako, digitalizatorako eta jasangarritasunerako proiektuen finantzaketara alde batetik, eta publikoak sortzeko eta fidelizatzeko proiektuen finantzaketa, eta ikus-entzunezko kontsumo-ohitura berrietara egokitzea bestetik.

Dirulaguntza horietara bideratutako zenbateko globala 1.153.262,69 euro da.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Dirulaguntzen programa honetara bideratutako guztizko zenbatekoa 16 proiektuen artean banatu da hasiera batean, baina dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi ondoren eta proiektu batek uko egin dio laguntzari. Azkenean, 1.123.433,35 euro banatu dira 15 proiektutan.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Euskadiko zinema-aretoen sustapenerako, modernizatorako eta digitalizatorako proiektu lagunduen kopurua	--	15



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kultura azeleragailuak (MRR)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko urriaren 11koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baitira 2022-2023 aldian Euskadiko Kultura eta Sormen Industriak azeleratzeko proiektuetarako dirulaguntzak, Europar Batasunaren Next Generation EU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2022/euskadiko-kultura-eta-sormen-industrien-azelarazio-proiektuetarako-dirulaguntzak-2022-2023-mrr-next-funtsak/web01-tramite/eu/>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kultura eta Sormen Industrien (KSI) azelerazioa bultzatzea, sektoreak ekonomiaren motor digital eta iraunkor gisa eta gizarte- eta lurralde-kohesioaren elementu gisa duen zeregina indartzeko.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Aurrekontua: 1.994.383,28 euro.

29 proiektuk dute aurrekontu-esleipena.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako proiektu kopurua	0	29



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kultura eta sormen industriren berrikuntza**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren 14koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen eta iragartzen baita Kultura eta Sormen Industriren Berrikuntzarako Funtsetik dirulaguntzak ematea KSI Berritzaile+ Programarako, 2022ko ekitaldian

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202925e.pdf>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2205210e.pdf>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko KSlen sektorean ahalmen berritzaile handia duten proiektuak laguntzea, sektorearen lehiakortasunaren hobekuntzan edo nazioarteko posizionamenduan eragina dutenak, eta, horrela, transferentzia-prozesuak garatzen eta sinergiak eta aukera-espazio berriak sortzen laguntzen dutenak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Dirulaguntza hauetara 700.000 euroko zenbatekoa bideratu da; horren % 50 2022. urteari dagokio, eta gainerako % 50a, 2023. Urteari. 2022an gauzatutako aurrekontua: 349.743,01 euro.

Balorazio-irizpideen artean honakoak daude, besteak beste:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa txertatzea.
- Balioa eta erabilgarritasuna ematea. Berrikuntza lotzen da desberdintasuna eta balio instrumentala, intrintsekoa edo soziala sortzearekin.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako proiektuak	--	16





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskara gizarte bizitzan (Euskalgintza)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko apirilaren 26koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022. urtean gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Euskalgintza deialdia).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Agindua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/05/2202027e.shtml>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2023/01/2300095e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko lanean diharduten pertsona fisikoek edo juridiko pribatuek 2021ean burutuko dituzten egitasmoei zuzenduriko dirulaguntzak arautu eta dei egitea. Diruz lagun daitezkeen egitasmoak hauek dira:

A multzoa:

- A1.- Euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko esparru ez formaleko egitasmoak, bereziki nerabe eta gazteen aisialdiko gune monitorizatueta (kirolean, kulturean eta aisialdi taldeetan) antolatzen direnak;
- A2.- Aisialdiko hezitzaile, dinamizatzaila edota begiraleei begira, euskarazko eta euskarari buruzko prestakuntza eta material-sorkuntza
- A3.- Kiroletako begirale edota entrenatzaileentzako euskarazko eta euskarari buruzko prestakuntza eta material-sorkuntza.
- A4.- Euskararen erabilera soziala sustatzearekin eta euskarazko ahozko komunikazioa hobetzearekin zuzeneko lotura duten jarduerak. Lehenetsiko dira mintzapraktika lantzeko egitasmoak eskola eremuan, beti ere, curriculum esparrutik eta gelatik kanpo.

B multzoa: Euskaldunen artean euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko asmoz, gizarte aktibazioaren bidez, hizkuntza-ohiturak aldatu eta hiztunak aktibatzerako bideratutako programak ekintzak eta jarduerak.

C multzoa: Euskaraz ez dakiten euskal herritarrak eta etorkinak euskarara hurbiltzeko helburua duten jarduerak eta egitasmoak.

D multzoa:

- D1.- Teknologia berrietan oinarrituta, nerabe eta gazteen aisialdirako euskarazko edukiak sortu eta



hedatzea helburu duten egitasmoak.

- D2.- Euskarazko atari digitalak. Interneten zerbitzuak euskaraz soilik eskaintzen dituzten web-gune ez komertzialak.
- D3.- Interneten edukiak euskaraz soilik hedatuko dituzten webgune tematiko ez komertzialak.

E multzoa: Euskararen familia bidezko transmisioa sendotzea helburu duten egitasmoak.

F multzoa: Euskarari zuzenean lotutako alderdiak aztertzea helburu duten jardunaldiak.

G multzoa: Euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea helburu duten egitasmoak: irakurketa- eta idazketa-trebetasunak garatze aldera buruturiko jardunak, sariak, lehiaketak, idazleen eta irakurleen arteko topaketak eta literatura-gidak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Esparru ez formaleko egitasmoak, aisialdiko hezitzaileentzako formakuntza, kiroleko begiraleentzako prestakuntza eta material-sorkuntza, ahozko komunikazioa, hizkuntza-ohiturak aldatu eta hiztunak aktibatzen bideratutako egitasmoak, erdal munduaren hurbilketa, jardunaldiak, familia bidezko transmisioa, irakurzaletasuna eta interneteko edukiak diruz lagundu dira. Deialdira 244 eskabide aurkeztu dira eta 1.550.000 euro banatu dira 183 egitasmo artean.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Esparru ez formalak	150	80
Euskal hiztunen aktibazioa		13
Erdaldunak eta etorkinak		6
Edukiak interneten		65
Familia bidezko transmisioa		4
Jardunaldiak		8
Irakurketa		7



#### 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

##### **Euskarazko hedabideak**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko ekainaren AGINDUA, 2022ko ekainaren 28koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022-2024 epealdian euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Hedabideak deialdia).

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Agindua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/07/2203126e.pdf>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204515e.shtml>

#### 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduaren xedea da arautzea eta iragartzea nagusiki gaztelania darabilten hedabideetan (eguneroko prentsan), paperean zein inprimatutako egunkarien edizio digitaletan, uhin bidezko irratietan eta internet bidez albisteak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan, euskararen erabilera areagotzeko dirulaguntzak.

Diruz lagundu ahal diren hedabideak hauek dira:

- Nazio mailako argitalpenak: albisteak edo gai hautatuak egunerokotasunetik haragoko sakontasunez lantzen dituzten euskara hutsezko nazio mailako argitalpenak: Euskal Autonomia Erkidego osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak (pentsamendua, zientzia, musika, natura, haur eta gazteei zuzendutakoak...; paperean bakarrik edo paperean eta on line).
- Tokiko irratiak: zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoan eman ahal izateko beharrezkoak diren lizentzien jabe izanik, osorik euskaraz emititzen ari diren uhin bidezko irratiak.
- Tokiko telebistak: zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoan eman ahal izateko beharrezkoak diren lizentzien jabe izanik, osorik euskaraz emititzen ari diren uhin bidezko telebistak.
- Hedabide digital hutsak: euskara hutsezko hedabide digitalak, on-line bidez baino zabaltzen ez direnak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Deialdiaren dotazioa 12.774.195 eurokoa izan da (4.258.065,00 euro urteko).

Deialdira 50 egitasmo aurkeztu dira eta horietatik 45 lagundu dira 2022-204 epealdirako.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza	
Aldizkariak	55	26	45
Irratiak		5	
Telebistak		7	
ON line bidezko hedabideak		7	



## 1.- Dirulaguntza Programaren izenburua

**Euskara gaztelaniazko hedabideetan**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko apirilaren 26koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022. urtean, zeinaren bidez arautu eta iragartzen baitira nagusiki gaztelania darabilten hedabideetan (eguneroko prentsan eta uhin bidezko irratietan) eta internet bidez albisteak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan euskararen erabilera areagotzeko dirulaguntzak

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Agindua: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/05/2202026e.shtml>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/10/2204515e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduaren xedea da arautzea eta iragartzea nagusiki gaztelania darabilten hedabideetan (eguneroko prentsan), paperean zein inprimatutako egunkarien edizio digitaletan, uhin bidezko irratietan eta internet bidez albisteak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan, euskararen erabilera areagotzeko dirulaguntzak.

Diruz lagundu ahal diren hedabideak hauek dira:

- A multzoa: eguneroko prentsa, egunkariak.
  - A1: nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako egunkariak.
  - A2: nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako egunkarien edizio digitalak.
- B multzoa: Internet bidez albisteak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentziak.
- C multzoa: osorik euskaraz emititzen ez duten uhin bidezko irratiak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Programan honen helburua hedabideetan euskararen erabilera handitzea da.

Euskara Gaztelaniazko Hedabideetan deialdi honetara etorritako egitasmoak 13 izan dira eta horietatik 13 diruz lagundu dira.

Deialdiaren diru-baliabideak: 1.000.000 euro.

Banaturako dirulaguntza: 1.000.000 euro.



## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza	
Egunkarien paperean inprimatutako edizioak	10	5	13
Egunkarien edizio digitala		5	
Berri-agentziak		2	
Uhin bidezko irratiak		1	



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskara sektore pribatuan (Lanhitz)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailaren 26koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, EAEn sektore pribatuan dauden lantokietan 2022an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko dirulaguntzak (Lanhitz) emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/08/2203791e.shtml>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea, EAeko sektore pribatuan dauden lantokietan, 2022an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko dirulaguntzak arautzea eta iragartzea (Lanhitz).

Diruz lagun daitezkeen jarduerak lau multzo hauetakoak dira:

- a) Lehenengo multzoa: entitatean euskara planik izan gabe euskararen erabilera edota presentzia sustatzeko jarduerak. Gehienez ere, hiru urtez jaso ahal izango da dirulaguntza multzo honetan.
- b) Bigarren multzoa: entitatean euskararen egoeraren diagnostikoa egin eta euskara plana diseinatzea, eta, nahi izanez gero, abian jartzea ekintza solteak eginez. Urte bakarrean lagunduko dira multzo honetako jarduerak.
- c) Hirugarren multzoa: entitatearen euskara plana eta urteko kudeaketa plana oinarri izanda, euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko jarduerak. Ezin izango dira multzo honetako onuradun izan, Lanhitzeko dirulaguntza 18 urtez jaso dutenak.
- d) Laugarren multzoa: entitateko euskara planak ibilbide luzea izanda, edo euskararen kudeaketan maila aurreratuan egonda, euskara planetik harantzagoko hizkuntza proiektu estrategikoak garatzea. Multzo honetan hiru urtez dirulaguntza jaso dutenek aurreko hiru urteetan Bikain ebaluazioa egina izan beharko dute laguntza berriro eskatu ahal izateko. Lanhitzeko dirulaguntza 18 urtez jaso dutenek multzo honetan egin beharko dute eskabidea.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Programari esker, 143 egitasmo diruz lagundu dira. Hona hemen datu adierazgarrienak:

- Deialdira etorritako eskaerak: 147 (LH1: 22 jasota, 19 diruz lagunduta; LH2: 15 jasota, 14 diruz lagunduta; LH3: 76 jasota eta diruz lagunduta; eta LH4: 34 jasota eta diruz lagunduta).



- Entitate eskatzaileetako langile-kopurua: 46.532 (emak: 20.905, % 45; giz: 25.447, % 55)
- Elebidun-kopurua: 25.516, %55 (emak: 10.007, % 39 eta giz: 15.509, % 61)
- Atzera egindako eskatzaileak: 4 (3 LH1 multzoan eta 1 LH2 multzoan)
- Baldintzak ez betetzeagatik baztertutako eskabideak: 0
- Lehiaketa-fasera pasatutakoak: 143
- Lehen aldiz deialdian diruz lagundutakoak: 42
- Balorazio-fasearen ostean puntuazio minimora iritsi ez direnak: 0
- Diruz lagundutako egitasmoak: 143 (7 Araban, % 5; 44 Bizkaian, % 31; 89 Gipuzkoan, %62 eta 3 EAEn, % 2)
- Entitate onuradunetako langile-kopurua: 46.263 (emak: 20.891, % 45; giz: 25.372, % 55)
- Elebidun-kopurua: 25.457, %55 (emak: 9.996, % 39 eta giz: 15.461, % 61)
- Aurkeztutako aurrekontua: 9.637.001,76 €
- Araztutako aurrekontua: 7.266.456,23 €
- Eskatutakoa: 4.560.029,15 € (LH1: 71.861,26; LH2: 152.919,72; LH3: 2.890.358,15; LH4: 1.444.890,02)
- Aurrekontu-partida: 2.000.000 €
- Esleitutakoa: 1.931.351,00 € (LH1: 51.298,00 €; LH2: 131.696,00 €; LH3: 1.161.568,00 €; eta LH4: 586.789,00 €)

Deialdi honen bidez dirulaguntza jasotzen duten erakundeetako langileen artean gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino. Langile horien artean, gainera, euskal hiztun gehiago daude gizonen artean emakumeen artean baino. Entitate onuradunek ekintzetan eta planetan genero ikuspegia txertatuta izan behar dute eta, ondorioz, laguntza hauek eragin positiboa izan beharko lukete entitate horietako enpleguengan, bereziki emakumeengan, abiapuntu apalagoa baitute euskararen ezagutzari dagokionez.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Emandako dirulaguntza kopurua	170	143





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskara eta genero berdintasuna (Berdintzen)**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko otsailaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022an euskara eta genero berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko lau bekatarako deialdia arautzen eta onartzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2022/euskara-eta-genero-berdintasunari-buruzko-ikerlanak-egiteko-bekak-2022-berdintzen/web01-tramite/eu/>

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea 4 beka ematea da 2022. urtean euskara eta genero berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko. Ezaugarriak honako hauek dira:

1.– Esleituko diren beken ikerketa-gaiak honako hauek izango dira:

- a) Euskararen biziberritze prozesuak generoari lotuta ulertzeko ikerketa teoriko edo-eta metodologiko demolinguistikoak.
- b) Generoaren ikuspegia txertatuz eraikitzen diren Euskararen biziberritze prozesuei buruzko ikerketa aplikatuak.
- c) Generoa eta hizkuntza uztartzen dituzten corpus, komunikazio edo-eta diskurtso azterketak hainbat eremutan (hezkuntza, lan mundua, familia, aisialdia eta kirola...).
- d) Euskararen biziberritzean emakumeek izan duten paperari buruzko ikerketa lanak (ahozko ondarea baliatuz edo-eta ikerketa bibliografikoak eginez).

2.– Beken xedearen ondoriozko lanak euskaraz egin dira.

Baliabide ekonomikoak eta ordainketa:

1.– Deialdi honetara bideratutako baliabide ekonomikoak 2022ko aurrekontu-ekitaldiaren kontura izan dira, eta kopurua guztira 30.000 eurokoa izan da.

2.– Beka bakoitza 7.500 eurokoa izan da, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bekaren helburu den azterlana jaso, aztertu eta ontzat emandakoan ordaindu da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Aurreikusitako 4 beka esleitu eta gauzatu dira, beraz aurrekontuaren % 100 ordaindu da.

Lau beken onuradunak guztira 6 pertsona izan dira (bi beka bina kideko bi talderi esleitu zaizkio).  
Onuradun guztiak emakumeak izan dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako beka kopurua	4	4